

- **Kirolak:** Ezoziko zelai berria urrian inaguratuko dute
- **Zer berri:** Urte amaierarako zuntz optikoa herrian izango da

soraluzeko  
hamabostekaria **228.** alea  
2010eko urriaren 1ean

# @ pil-pilean



**ZAINTZA ZERBITZUAK**  
**Umek denbora gehiegi**  
**pasatzen dute eskolan?**

## 1- Etxebizitza

### Salgai:

- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hiru logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.
- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hiru logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuak deitu 649 759078 mugikorrera (Ainhua).
- Lau eta sei urte bitarteko haurrentzat arropa salgai. Berokiak, galtzak, oinetakoak eta beste hainbeste. Prenda guztiak euro bat eta hiru euro artean. Interesatuak, 649 318385 telefonora deitu.
- Gipuzkoa Etorbidea 24-5B pisua salgai. Interesatuak 617 347 906 telefonora deitu.
- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidean. Deitu 605744466 telefonora (Mariage).
- Pisu ederra salgai: Ezozibidean, 28zka, 3. eskuma. Bizitzera sartzeko prest, altzairuz betea, berritua, berogailuarekin, kanpora ematen du eta altura bikoitzeko kamarote espaziosua. Telefonoa: 646-52 26 59.

## 2- Lana:

- Lehen mailako ile-apaintzaile ofiziala behar da, esperientziaduna. Interesatuak, 943 530 000 telefonora deitu.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesa baduzu 685 765 267 telefonora deitu.
- Mutil arduratsua lan bila dabil. Brotxa fin eta lodiko margolaria naiz, errotuluak egiten ditut, azulejuak jartzen ere badakit, umeak edo nagusiak zaintzeko prest nago, sukaldean badakit eta garbiketarak ere egiten ditut. Interesatuak, 672 952 424 edo 943 75 17 11 telefonora deitu.
- DBH eta Batxilerguan klase partikularrak emoteko prest nagan soraluzetar bat naiz. Deitu lasai! Ander, 656 718 510

- Modistak era guztietako konponketak egiten ditu Gabolatx kalea, 29, 1 Telefonoa, 666 815 008 / 679 878 676.

- Modistak era guztietako arropak konpondu eta josten ditu, prezio onean. Errabal kalea 6-1 eskuma. Telefonoa: 634 841 172 edo 943 75 1711.

## 3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuak deitu 669 145 893 telefonora.
- Garajeak salgai, Estazio Kaleko 2 eta 3 zenbakietan. 19. 250 eurotan. Interesatuak, 94 480 26 60 telefonora deitu.
- Garajea salgai Errekalde auzoan. Interesatuak deitu 649 127 560 telefonora.
- Garaje plazak eta biltegi txikiak alokatzen dira. Deitu: 627 700 851 edo 649 82 47 63 (Arantxa)

## 4- Denetarik:

### Salgai:

- Estreinatuta gabeko Wii berria salgai. Prezio oso merkea, 160 euro. Interesatuak 943 752402 telefonora deitu (Mari Mar).

### Hartu:

- Ordenagailuko kañoia erosiko nuke. Interesatuak: 628233464
- 6.0, 6.1 luzerako surfeko ohola erosiko nuke. Olatuan maniobrak egiteko moduko ohola eta egoera onean dagoena. Telf: 655721190 eta emaila:tatxus@gmail.com. IKER.
- Hirian ibiltzeko moduko bizikleta merkea erosiko nuke. Ez du inporta zaharra izateak. 100 euro ordainduko nituzke gehienez. Telf:655721190 eta emaila:tatxus@gmail.com IKER.
- Eibarko Tallarra Gaztetxeak sukaldatzeko sua behar du. Etxetik jasatzeko prest gaude. Interesatuak 664 212 382 telefonora deitu.

Atal honetako iragarkiak doan dira.  
Iragarki guztiak, soraluze.iragarkilaburrak.com helbidean daude  
eta baita, www.plaentxia.com helbidean. Kontaktuak bertan.

Iragarkiak jartzeko:

943 75 13 04 telefonora deitu edo [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)-en  
[soraluze.iragarkilaburrak.com](http://soraluze.iragarkilaburrak.com)



AITOR MADRID



MARKEL ARIZAGA

## PERSECULA SECULORUM

O rain dela hogeit bat urte mundua bi zatitan banatuta zegoen: kapitalismo sistema erabiltzen zuten herriak batetik eta komunismoa erabiltzen zutenak bestetik. Banaketa honen erakusle Berlingo harresia genuen. Hormak aberats eta txiroen arteko aldea estaltzen zuen neurri batean eta desagertzean bere gordintasuna agerian gelditu zen. Egun, harresi hura ez dago baina isilpean beste hainbat dade. Pobreziak nahi eta nahi ez dakarren pertsona txiroen mugimendua eragozteko. Segurtasuna bermatzeko aitzakian altxatuak izan dira. Adibideak, Mexiko eta Estatu Batuen artekoa muga edo Maroko eta Espainia artekoa.

Etorकिन azken kapitulua Frantziatik etorri zaigu. Sarkozy berak, etorkin ahaideak izan arren, ijitoak kanporatzeko ez du inolako zalantzarik izan. Europar batasunaren barnean libre ibiltzeko dagoen eskubidea goitik behera urratuz. Ijito hauek aberatsak balira berdin jokatuko luke? Beste etorkin taldeekin, errusiarra kasu, zergatik ez du berdin egiten? Errumaniarrak txiroak dira eta ezin dira defendatu, aldiz, errusiarrak aberatsak. Gainera jokaldi honekin eskuin muturreko boskak erakartzen ditu eta oso mesedegarri zaio datozen hauteskundeetarako.

Etorकिनak etortzen jarraituko dute, harrisiak egon edo ez. Gutarrak Ameriketara joan ziren moduan etorriko dira.

Hobe genuke hauek dakarten ezagutzaz eta kultura aniztasunaz baliatu mehatxu bat moduan ikustea baino. Egoera aldatzeko aberastasuna partekatzen dugu edo bestela gudak eta gatazkak izango ditugu, persecula seculorum.

“

***Ijito hauek aberatsak balira berdin jokatuko luke?***

Aitor Madrid

***Ez da bidezkoa, neketsu bihurtzen direnean beraien herrialdeetara bidaltzea.***

Markel Arizaga

”

Aberastasunak pobrezia sortzen du. Danok aberats ezin gara izan, baina behartsurik ez egotea posible izan daiteke, batzuk hainbeste izan gabe, danok nahikoa izan ahal izateko. Erraza da esaten eta konpontzen berriz, oso zaila.

Argi eta garbi dagoena da, gaur egungo egoera oso desparekatua dagoela, eta beharrak dituzten herrietatik soberakinak dituztena, migrazioak beharrezkoak direla. Hau ikusita, gauzak ahal dan eta bidezkoen egitea da gure lana. Egia da muturreko egoera batean dagoena, batzuetan edozer gauza egiten duela ahora zerbait eramateko, desesperazioz hartutako erabakiak direla medio. Baina hortik etnia edo giza talde bati gaizkile edo arriskutsu kartela ipintzera badago aldea.

Hau dala eta, Sarkozyn azken burutazioa lekuz kanpo dagoela iruditzen zait, eta beste edozer baino gehiago, arrazakeri asunto bat dela susmatu daiteke. Gainera, oraingoan Europar Batasuneko legeak pertsona guzti hauek besterik gabe kanporatzerik ez du onartzen. Ikusteko geratzen da, hori bai, legeak errespetatu arazteko estatuak duten intentzioa, edo kasu hau eskuartean izaterakoan, beste alde batera begiratzen duten.

Herrialde behartsuak inork ez ditu nahi, nahiz eta askori oso ondo etortzen zaizkion arropak prezio onean fabrikatzeko edo bertako baliabide naturalak erabiltzeko, adibidez. Beraien egoera gure onerako aprobetxatzea ez da bidezkoa, hemendik eratortzen diren arazoak konpontzen lagundu nahi ez badiegu. Ez da bidezkoa, neketsu bihurtzen direnean beraien herrialdeetara bidaltzea.

Goguan hartzeko

**“Goian dabilenak nahi dittuan mugak ipintzen dittu eta otutzen jakon moduan agindua daroia”**

Juan Antonia Mogel



## GUTUNAK

**Gure lehengusinia bortxatu egin dabe**

**B**ai, gogorra da esatia baina gure lehengusinia irailan 14ian hainbat gizonetxetik etara eta bost egun eta bost gabetan bortxatu egin dabe. Holan kontatu dosku berak pasatu bihar izan dabena: "...Intxaurren beste talde batek hartu ninduen, eta orduan, dena aldatu zen, hurrengo bost egunetan ia kendu ere egin ez nuen antifaza jarri zidaten. Madrilerako bidaiaren hasieran laztandu egiten ninduten. Euskal Herria atzean utzi genuenean jarrera aldatu zuten, amesgaiztoa hasi zen: poltsa, kolpeak, erdi biluzik jartzea, ukipenak, galderak, mehatxuak... Etengabea izan zen jazarpen sexuala, autoan sartu nindutenetik. Biluztu egin ninduten, ukitu, bortxatuko nindutela esan, zakila ukiarazi (tutu bat zela uste dut). Bospasei hots ezberdin entzuten nituen. Eurekin lo egitera joan behar nuela esaten zidaten, eskutik hartzen ninduten... Irainak ere etengabeak ziren. Biluztu egiten ninduten. Niri begira jarri eta komentarioak egiten zizkidaten. Bitartean gorputz guztia ukitzen zidaten. Bortxatuko nindutenaren plantak egin, mehatxuak, ahoa ukitu, titiburuak, laztanak... Bostgarren egunean

alua ukitu zidaten. Gero eta intentsuagoa zen dena. Dena epaileari kontatu nion eta kasurik ere ez zuen egin...". Ze egin dotsue Ani maitxia. Negar malkuak urtetzen jakuz egin dotsuena idazterakuan. Guardia Zibil burugaldurik horrek, indarrez etxetik eruan, inkomunikatu eta torturatu egin zaittue, oin 30 urte zure lau osaba eta izeba moduan. Berdin-berdin. Espainian eta demokrazian izenian. Rubalcaba, Patxi Lopez eta Aresek aginduta. Hori bai, Urkulun adostasunakin. Herri honen alde zuk eta beste hainbat militante politikok egindako lanak min egitten dotse. Zuk esaten dozun moduan ezin dabe herri bat bere askatasun aldeko lanian ikusi eta hori desagerrarazi nahi dabe. Eta bittartian komunikabide gehixenak eta "demokratak" itsu, gor eta mutu. Baina Ani, gu ez gara ixilduko. Hurrengo eguaztena 6, Udalbatzan mozinua aurkeztuko dogu zuri eta beste 8 laguneri egindakua salatzeko eta alderdi zein herritarrek konpromisuak hartzeko. Inork gehixau ez dedin infernu honetatik pasatu, dei egitten dotsegu Plaentxiar guztieri bertara jauteko. Animo eta eutsi Ani! Besarkada eta muxu bero bat Plaentxiatik Alcalako ziegara.

**Ander eta Argoitz Ariznabarreta,  
Naiara Kortabarria, Hiart eta Iraultz Arluziaga.**

**Bidegorri berria martxan**

**I**railaren 21ean izan zen Soraluze - Mekolalde bitarteko bidegorri berriaren inagurazioa. Lau kilometroko luzera dauka bidegorriak. Gutxi gora behera miloi bat eurotako inbertsioa suposatu du. Inbertsioa Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du bere gain. Buruturikolanen artean asfaltatzelanak, seinalizazioa eta nabarmenena burutu diren argiztapen lanak izan dira. Ipinitako farolak kontsumo bajukoak dira eta ordutegi finko bat edukiko dute alperrikako gasturik izan ez dezaten. Mantenimen-

dua eta kontsumo gastuei Foru Aldundiak egingo die aurre. Jakinekoea da bidegorriaren erabilera areagotu egin dela lan hauek bukatu ondoren, beste herrietako jende ugari ikus daiteke bidegorrian. Esan daiteke arrakasta itzela izan duela. Gure taldearen aldetik eskerrak ematea nahi diogu Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko departamentuari eta bereziki Karlos Ormazabal Foru Diputatuari. Informazio gehiago [www.soraluzepnv.com](http://www.soraluzepnv.com).

**Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea**

# Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com) **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Gotzon Elizburu  
Hil

**E**z. Niri orain ez etorri oinatzten sakontasunaz hitz egiten. Niri orain ez etorri askatasunaren (zure) definizioa ematera. Ez dizut onartzen demokraziari buruzko leziorik. Ez iezadazu esan, mesedez, ze eskubide ditudan eta zeintzuk ukatzen dizkidan zure legediak. Ez dut nahi. Nahikoa dela diotsut, aski da!

Oinatzak hondartzan sakonagoak izan ohi dira, baina sendoagoak harri gainekoak. Askatasuna ez da kaiola barruan aukeratzeko dudaren eskubidea, askatasuna kaiolarik ez egotea da. Demokrazia ez da lau urtean behin bozkatzen (ez) uztea. Zure legeak kaiola dira.

Kaleak hil dituzue, liderrak (herria) hil dituzue, ametsak heriotzara kondenatu nahi dituzue, zerua zuenganatu, izarrak itzali; lurraren negarra entzun al dezakezu? Belarria lur hezearen kontra ezarri al duzu? Probatu al duzu? Entzuten al duzu? Bizitza hil duzue.

Eta orain... Orain niri ez esan 72 ordu itzarroteko, berpizkundearen zain. Jainkoak heriotzaren maitaleak dira. Jainkoak heriotzaren maitaleak dira, heriotzarenak.

Bala baten irudi izoztua begien aurrean, zuzenean niregana. Hori da zuen eskaintza.

Bakardadearen, oihartzun isila. ... baina, irribarrea ez duzue hil. Eta ez dago umorerik gabeko iraultzarik.

## ((ENTZUTEKUAK))

## Feli Oregi, Ulzibat teknikaren aurkezpeneko antolatzailea

Burmuineko paralisia duten ume askoren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko balio duen Ulzibat zirujau errusiarraren teknika aurkeztuko dute gaur, lehenengoz Euskal Herrian. Sorraluzeko Zinean izango da eta Feli Oregik antolatu du.

**Zer dala eta antolatu dozu hitzaldi hau?**

Oier gure seme nagusixak, "Burmuineko Paralisia" dauka. Guk ikasitakua bestieri zabalteko antolatu dogu.

**Zein tratamendu erabili dozue zuek oinarre?**

Medikuak ez zoskuen esperantza handirik emoten baina guk lagun eta senidien bittartez Philadelphiako tratamendu bat ezagutu genduan. Tratamendu honekin elikadura, hezkuntza, fisiologia, ikusmena... landuz, aurrerapauso galantak emon genduzen. Horren ostian, Errusiara jo genduan, Ulzibat metodoa probatzera. Makrobiotika, homeopatia eta osteopatia be erabiltzen dittugu.

**Zertarako da teknika hau?**

"Ulzibat doktorearen teknika" da. Munduan bost zirujauk erabiltzen dabe. Bostak Errusiarrak. Muskuluak askatu eta elastikotasuna lortzen laguntzeko da.

**Hobekuntzarik igarri dozue?**

Ebakuntza egin aurretik Oier oso gogor zeguan. Errusiatik bueltan elastikotasun gehixago dauka (jateko, barre egiteko, buruari eusteko...) eta osasun



aldetik asko hobetu da. Esateko, lehenengo aldiz etxeratu ginan Oier itsua zan. Lan askoren ostian, Oierrek ikusi eta ezagutu egiten dau, entzun eta ulertu.

**Gomendixoren bat egoera berdinian daren familixendako.**

Medikuak lehenengo momentuan esandakuari kasu gehixegi ez egitteko. Txarrenian jarriko dira baina umiak beti izango dau zer hobetu eta zer ikasi. Tratamenduen bila mobidu bihar dau

*"Ulzibat metodoak muskuluak askatu eta elastikotasuna lortzen laguntzen dau."*

**Eta gizartiarik?**

Danian integratziño berbia erabiltzen bada be, ez da erreal. Gaur egun urrittasunak dituen pertsonak baztertuta dare gizartian. Normaltasuneruntz bide luze bat dago ondio egitteko eta danen laguntza bihar dogu horretarako.

**HNOS. BENITO ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

# Euskalteko zuntz optikoa urte amaierarako

Udalak eta Euskaltelek lortu-tako akordioari esker urte amaierarako herrian Euskaltelen zuntz optikoa eskuragai izango dela jakinarazi du Udalak. Egunotan Sagarrerrekatik Mendiola industrialderaino hodiak bideratzen dihardute. Udalak 79.726,92 euroko inbertsioa egin du horretarako. Alkatearen esanetan, lanok amaituta izango dira urriaren lehenengo hamabostaldirako.

## Euskaltel etxez etxe joango da

Euskaltelek jakinarazi digunez, etxeetarako konexioa egiteko kableatua urrirako eginda izango da. Urrian, Euskaltel enpresa etxez-etxe galdeketa egiten hasiko da, etxejabeek zuntz optikoaren zerbitzua kontratatu nahi duten jakiteko. Urte amaierarako lan guztiak eginda eta zuntz optikoa erabilgarri izatea aurreikusten dute.



## Mesedetako jaien zozketako zenbaki sarituak

Irailaren 17an, 18an eta 19an Mesedetako Amaren jaia ospatu zen Txurruken auzoan. Juan Rokek adierazi digunez, bertan egin zen zozketak badiu irabazleak. Lehenengo saria 2642 zenbakia izan da eta Igartuak (arrautza saltzaileak) irabazi du. Bigarren saria berriz Arrate Iparragirrentzat izan da, 3889 zenbakiarekin.

## Urrian KZgunea goizez zabalduko da

Soraluzeko KZgunea urriaren 7an, 14an, 21ean eta 28an egongo da zabalik goizez, 9:00etatik 13:00ra bitartean. 16 urtetik goragokoek, hainbat ikastaroren bitartez, interneti buruzko ezagutza handitzeko aukera izango dute bertan: blogak kudeatzen ikasi, komunikazioa landu, irudien edizioa egiten ikasi, bideoak ikusi eta bilatu, Skype, Softonic... besteak beste. Aitor Madrid izango da aurten ere KZguneako arduraduna. Informazio gehiago 943 75 30 45 telefonoan.

## Bizikalek 500 euro zozketatuko ditu

Bizikale Merkatarien Elkarteak 250 euroko bi sari zozketatuko ditu. Errifak, irailaren 17tik urriaren 15era bitartean banatuko dituzte elkarteko dendetan eta zozketa urriaren 17an izango da, arratsaldeko 20:30ean Plaza Barrian. Arduradunek jakinarazi dute, zozketa egunean errifa irabazlea Plaza Barrian egon beharko dela eta irabazlea agertu ezean, beste zenbaki bat zozketatuko dutela, irabazlea agertu arte.



## Merkatu Plazako lanak martxan

Merkatu Plaza gaineko lokalak kultur taldeen erabilerarako egokitzeko lanak hasi dira dagoeneko. Lehenengo lana terrazako ur itoginak mozteko tela asfaltikoa jartzea izango da. Etorkizunean lokal horien erabilera kultur gintzara bideratuko dela erabakita badago ere, datozen asteetan zehaztuko du Udalak zein jarduera garatuko den bertan.



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91  
Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99  
SORALUZE

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

**etxera**

**Bidegorria inauguratu dute**

Irailaren 21ean inauguratu zen Osintxutik Mekolaldera arteko 1,8 km-ko bidegorri berritua. Guztira, 4 km-ko luzera du Soralezetik Mekolalderako bidegorriak eta Aldundian milioi bat euroko inbertsioa egin du bertan. Berritasun aipagarriak bidegorri osoaren argiztapena eta itxitura dira.

**Kilometroetara joateko autobusa**

Urriaren 3an Pasaia-Lezon egingo den Kilometroak 2010 jairako autobusa antolatu du Pii-pilean Euskara Elkarteak. Domeka goizeko 9:15etan aterako da autobusa Gilako zubitik. Izen ematea berriz, Iratxo, Arrano edo Gaztelupen egin daiteke.

**Bilboko manifestaziora joateko autobusa**

"Ez manifestazioen debekuari. Ez inongo inposiziorik, ez inongo indarkeriarik. Bai giza eskubideei, eskubide zibil eta politikoei" lemapean zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora joateko deialdia egin dute ezker abertzaleak, Aralarrek, LABek eta 40 gizarte eragilek. Manifestazioa eskubide zibil eta politikoen aldekoa izango da eta arratsaldeko 17:00etan irtengo da Casillatik. Soralezetik manifestaldira joateko autobusa 15:45etan irtengo da Amutxastegineko geltokitik. Izena ohiko lekuetan eman behar da.

# Emakumeenganako indarkeria gaitzesteko lehiaketa

**B**erdinsareak (Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalen Sareak) Adieraz Zaitez! Beldur Barik! lehiaketaren lehen edizioa antolatu du. Helburua emakumeen aurkako indarkeria zuzenean edo zeharka gaitzesten duen adierazpen artistikoak aitortu, balioetsi eta sustatzea da. Datorren azaroaren 25era begira antolatu dute, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira.

**Adierazpen artistiko guztiak**

Lehiaketa 16 eta 26 urte arteko gazteei zuzenduta dago eta proposamenak bakarka edo taldean aurkeztu daitezke; taldean eginez gero, partaideetako batek gutxienez emakumezkoa izan behar du. Modalitateei dagokionez, adierazpen artistiko guztiak onartuko ditu lehiaketak: pintura, musika, zinema, poesia, eskultura, dantza, animazioa, argazkilaritza, performancea... besteak beste. Lanak aurkezteko epea urriaren 29an itxiko da eta saria berriz 1000 eurokoa izango da.

Izena emateko: Herriko Berdintasun Sailera jo behar da edo 943 75 30 43 telefonora deituta edo berdintasuna@soraluze.net helbidera idatzita. Informazio gehiago: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) helbidean.

**Esateko asko duzualako.**

Zuen adierazteko modus edozein izanik, hau da zuen aukera emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako gaitzesteko adieraz eta azarpeko 27-an antolatuko den **Beldur Barik** lehiaketan zuen proiektuak parte hartzeko.

Jaso **Beldur Barik** lehiaketan parte hartzeko inprimak udalazteko Berdintasun Sailera edo jaitzi hemen: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)

**Porque tú tienes mucho que decir.**

Sea cual sea vuestro modo de expresión, esta es la oportunidad para mostrar vuestro rechazo a la violencia contra las mujeres y participar con vuestro proyecto en el **Festival Beldur Barik** que se celebrará el 27 de noviembre.

Recoge las bases para participar en el concurso **Beldur Barik** en el departamento de Igualdad de tu Ayuntamiento o descárgalas en: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)



*Disenua eta Formena*

Polígono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

**Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

# Zaintza eta jantokiaren erabilpena eztabaidagai

Umeen zaintza zerbitzuek gora egin dute Sorluzen azkenaldian. Lana eta umeen zaintza uztartzen dituzten gurasoek irtenbidea ikusi dute zerbitzu hauetan. Erabileraren gainean iritzi ugari dauden arren, protagonista gehienak bat datoz umeentzat onena etxeakoak zaintzea dela.

## Jantokirako eskaerak gora

Duela hamar urte jantokia ipini zuten Plaentxi LH-ko ikastetxean, orain hiru urtetik Haurreskola eta zaintza zerbitzua ere badago. M<sup>a</sup> Eugenia Etxarri jantokiko behargina da duela 7 urtetik. Lankideekin batera 175 umeri ematen die bazkaltzen eskolako jantokian. Gero eta ume gehiago geratzen dira bazkaltzen eta urtero 15 plaza berri sortzen dituzte eskariari erantzuteko. Leku falta handia dagoenez 8 urtetik gorako 55 ume inguruk Institutuko eraikinean bazkaltzen dute beste 25 gazterekin batera: “Joera hau mantentzen bada, 3 urte barru dena beteko da” dino Etxarrik.

Zaintza zerbitzua berriz, duela 3 urte inguru sortu zen zenbait guraso, Guraso Elkarte eta udaletxearen elkarlanari esker. Niko Mendia Guraso Elkarteko kidearen hitzetan, helburu bakar batekin sortu zen zerbitzu hau: bi gurasoak lanean ari diren familietan umeak denbora nun pasa edukitzeko, gurasoak lanean joan eta umea eskolara sartu bitarteko orduetan umeak nun egon eduki dezan. Haurreskolak ere bere funtzioa betetzen du 0-2 urteko 16 haurren hezkuntzan eta laguntzan orain hiru urtetik.

## Non dago neurria?

Erraztasun hauek zer ekarri digute? Aurrera ala atzera egin dugu hezkuntzan?

**M<sup>a</sup> Eugenia Etxarri:**  
“Ondoen etxean daude”

Alegia, ez al genuke gure egunerokoa umeen erritmorra moldatu behar eta ez, umeak gure betebeharren agendara moldarazi.

Niko Mendiak ordutegietan malgutasuna behar dela uste du: “Nik uste askoz hobeto moldatuko ginatekeela lanean malgutasun handiagoa bagenu lanaldi erdiz egoteko, beranduago sartu

edo lehenago irtetzeko. Horrela, seme-alabekin egoteko denbora gehiago genuke eta ez umeak ez lirake ordu luzeetan gugabe egongo”. Zaintza zerbitzuan 13 ume geratzen dira goizez. Oinatze Silbeti begiralea da eta bat dator Mendiarekin: “Garaiak asko aldatu dira eta zaintza da familia askorentzat irtenbide bakarra, baina egia da ume batzuek denbora asko pasatzen dutela etxetik kanpo”.

Etxarrik dioenez, hobe litzateke umeak etxean bazkalduko balute: “Hainbeste umeak zarata handia sortzen du eta askotan, euren agresibitatea ateratzen du. Ume urdurien jarrera okerrera joaten da, ez dute giro baketsuan eta patxadatsuan bazkaltzen.

Beste batzuk berriz, eskolan ordu asko pasatzen dituztenez gehiago nekatzen dira. Horregatik, beste erremediorik ez dagoenean ondo dago eskolan bazkaltzea, baina argi dago umeak ondoen etxean daudela”.

Plaentxi LH Ikastetxeak egungo egoerak sortutako testuinguru baten barruan ulertzen du guztia: emakumeak lan merkatuan izan duen sarreraren barruan eta zerbitzuak arazo sozial horri hezkuntzak eman dion erantzuna dira: “Antolaketa honen helburua gurasoei erraztasunak ematea eta bizi kalitate hobea eskaintzea izan da, nahiz eta batzuetan gurasoek eskaintza honi erabilpen desagokoa eman eta ezinbesteko premiak betetzeko baino gehiagotan erabili. Ezin dezakegu ahaztu haurrak guztion artean “Hazi eta Hezi” behar ditugula!” dio.

**Plaentxi LH:** “Ezin dezakegu ahaztu haurrak guztion artean “Hazi eta Hezi” behar ditugula”

**Niko Mendia:**  
“Lanean malgutasun handiagoa bagenu hobeto moldatuko ginateke”





## NEREA MENDIZABAL

Psikopedagogo



### Ze ondorio ditu gurasoak umeagandik horrenbeste ordu banatzeak?

Oinarrizko eskola orduz gain beste ordu batzuk gehitzen badizkiegu, edozein dela arrazoia, azkenean haurrentzat larregi gertatzen da eta honen ondorioak oraindik ikusteko gaudela iruditzen zait. Lehen urteetan izango duen erreferentziazko pertsonarekin eraikiko duen erlazio iraunkor eta konstanteak garrantzia handia du haurraren bizitza guztirako. Umea pertsona orekatua izateko garrantzitsua da bere oinarrizko beharrak asetuta egotea, haurraren ziurtasunean, garapen adimean eta osasunean eta etorkizuneko binkuluak eraikitzeke gaitasunean. Gurasoengandik horrenbeste orduz bananduta egotean, ezinezkoa da behar den intentsitate eta kalitatea lortzea, nahiz eta haurtzaindegiko, jangeletako eta eskolaz kanpoko zerbitzuetako hezitzaileek ahalik eta goxotasun, maitasun eta intentziorik onenarekin egin.

### Etxeko heziketa zergatik da garrantzitsua?


Gizakiak amarekin eta aitarekin egiten duen binkuluak pisu berezia du. Etorkizuneko erlazioetarako ereduia izango da. Horregatik da garrantzitsua batez ere amarekin izango duen erlazioa solidoa eta sendoa izatea, gainontzekoak ere ildo horretatik joan ditezten. Bizitzan zehar eraikiko dituen harremanak pisua hartzen joango dira baina oinarrizkoa etxekoa izango da.

*“Lehen urteetako erreferentziazko pertsonarekin duen harremanak garrantzia handia du”*

### Umeari eskaini behar zaion arreta gurasoen lanak eklipsatzen du askotan. Zela bilatu oreka hori?

Hemen dago benetako artea, gurasoen lana eta haurrek behar duten arretan oreka aurkitzea.

Beharrezkoa bazaigu ordu luzeetan haurragandik banatzea eta bere ongizatea begiratu nahi badugu, txikiak direnean atentzio pertsonalizatua eskainiko zaion espazioa eskeintzea litzateke onena: ahalik eta ordu gutxien, gelditu behar duen pertsonarekin binkulua egin dezan beharrezkoa duen egokitzapena egitea, haurraren erantzun eta erreakzioa behatzea eta horren aurrean malgutasuna agertzea... Hazten doan heinean, haurraren nahiak errespetatu eskolaz kanpoko aktibitateetarako (konbentzitzen ibili gabe). Jangelako zerbitzua denbora luzean mantendu behar badugu, haurrak nola hartzen duen ikusi eta beste aukerak ere aztertu behar genituzke bere deskantsua ere bermatzeko.

Elkarrizketa osoa 



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Gaur egun gurasoak hainbat zerbitzu dituzte umeen zainketarako. Lana eta beharra uztartzeko modua topatu dute, besteak beste, jantokia edo zaintza zerbitzua. Ze erabilpen emoten jako?

## Zaintza eta jantokiaren erabileraren gainean ze iritzi daukazu?

**IZASKUN ROMAN**  
Etxekoandria



**N**ik uste erabilera ona emoten jakela, begiratzten dabe benetako biharra dauken ala ez. Nere umia jangelara bialtzen dot lanian nagualako, bestela ez dakitt zer egingo neuken! Hori bai, umiek ordu asko ez leukie pasatu bihar bertan.

**M<sup>a</sup> ISABEL MARIN**  
Langabetua



**G**ehixenetan ondo erabiltzen da, guraso bixak lanian darenian. Denbora asko banaduta egotiak umiengan eragin leike. Nik hiru seme-alaba dittut eta lan flexibliak topatzen saiatzen naiz umia lehentasuna izateko.

**JOSE IGNACIO H.**  
Langabetua



**E**gixa esateko ez dakitt ze esan. Guk umia biharragaittik eruatzen dogu jantokira. Gainera, holan jaten ikasiko dau ze etxian ez dau ezebe jaten! Erabilerian gainian ez daukat iritzirik.

**JUAN ZABALA**  
Montatzailia



**P**entsatzen dot guraso asko erabiltzera derrigortuta darella. Adinan araberba be desberdina da, baina ume asko pozik doiaz jantokira lagunekin bazkaltzen dabelako. Etxekuen arduria izan biharko litzake baina!

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**  
Hotzian eta beruan jotako tornilluak  
Errekalde 21 20590 SORALUZE  
T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**GAZTELUPE**  
taberna  
tel: 943 75 20 81



Merkatu Plaza 20590 Soraluze T. 943 75 24 40  
eguneroko arraina eta konjelatuak  
**Juan Mari arraindegia**



**Antzerki zikloko data berriak**  
**Urriaren 29an:** "Kanpaia jo bi-tartean" Galder Perezen zuzendaritzapean.

**Azaroaren 12an:** "Euskarazetamol" Patxo Telleriak zuzenduta.

**Azaroak 26an:** "Vuelve, bigotillo, vuelve" Edu Ponbar soraluzetarrak parte hartuko du bertan.

**Sarrerak** astebete lehenago kiroldegian jarriko dira salgai, 5 eurotan.

### Kukumixok lan poltsa osatzen dihardu

Taldeak ekin dio ikasturte berriari eta hezitzaileen lan poltsa osatu nahi du. Horretarako, aisialdi taldean parte hartu nahi duten 17 urtetik goragoko herritar guztiei deialdia egin nahi die, Kukumixon izena eman eta hezitzaile moduan jarduteko. Bertan parte hartzeko ez da begirale titulurik behar, bai ordea gogo eta ilusio mordoa. Horretarako, 943 751304 telefonora deitu (Maite) edo koordinazioa@pilpilean.com helbidera idatzi.



### Lai Bedos Oreaka Art aretoan

Urriaren 15etik 30era bitartean Lai Bedós katalanaren koadroak izango dira Oreaka Art aretoan. Laiak arte abstraktua lantzen du eta bere margoetan emozio eta bizi egoeren inguruan ikeretzen saiatzen da. Hainbat erakusketa ere antolatu ditu, Bilbon, Bartzelonan, Bergaran, Parisen, Ibizan, Gironan... besteak beste. Soraluzeko erakusketa-aren inaugurazioa urriaren 15ean izango da, arratsaldeko 19:00etan.

# Txurrukeneko jaiak iparraldeko gaiteroen soinupean

Hilaren 17an hasi eta domekara arte luzatu ziren Mesedeetako Amaren jaiak, Errekalde kaleko 24 eta 26 zenbakien artean. Barixaku iluntzean jokatu zen mus txapelketa Antonio Condek eta Secundino Soriak irabazi zuten. Zapatuko festa buruhandi eta iparraldeko gaiteroekin hasi zen. Ondoren paella prestatzen hasi ziren, herri bazkarira hurreratu ziren denek jan zutena. Bazkal osteko nagia kentzeko antolatu zen tute txapelketa Rogelio Fernandez eta Antonio Mar-

tin soraluzetarrak irabazi zuten. Iparraldeko gaiteroek dantzan jarri zuten jarraian Errekalde auzoa. Domekan jubilatuek ere tartea izan zuten Mesedetako Jaietan.

### Antolatzaileen eskerrona

Mesedeetako jai batzordeak eskerrak eman nahi dizkie antolakuntzan bolondres lanak bete dituzten guztiei eta baita asteburuan Errekalde 24-26 zenbakietara hurbildu diren herritar denei ere.



Iturria: Mikel Valero

### Mesedetako Amaren ospakizuna Egoitzan

Mesedetako Amaren Egoitzako aittita-amamak bertako patroien Mesedetako Amaren jai ospatu zuten joan zen barixakuan. 11etako mezaren ostean, luntxan, bazkari berezia egin eta jarraian Mendotz trikitaliak alaitutako dantzaldiaz gozatu zuten..







**MAPFRE**



**SORALUZE ZERBITZUAK S.L.**

---

**Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal**

Gabalatz, 5-B Behea  
 20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
 e-mail: jibarzo@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
 Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
 FAX: 943 75 16 10

## Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

- Empapelatuak
- Estukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

# Etxeberria eta Gallastegi Gipuzkoako Pala Txapelketan lehenengo



Iturria: Eulogio Mancebo

Joseba Etxeberriak eta Jon Gallastegik, Elgoibarko "Lagunak" taldearekin Gipuzkoako 3. mailako Pala Txapelketa jokatzen dihardute. Lehen bipartiduak irabazi ostean, lehenengo postuan doaz gainera. Lehenengo garaipena Urretxuko bikotearen kontra lortu zuten, 30-17, eta bigarrena berriz, Donostian Alde Zaharra bikotearen kontra, 30-15. Asteburu honetan Debako pilotalekuan jokatuko dute, Debako Euskal Jolas bikotearen kontra.

## Astlehenean erabakiko dute futbol zelaiaren inaugurazio eguna



Soraluze Futbol Taldeko zuzendaritzak astlehenean erabakiko du inaugurazio ekitaldia noiz egin. Lanen egoeraren arabera erabakiko dute, urriaren 9an edo 16an egingo dute. Ekitaldirabesteak beste Aldundiko

eta Federazioko ordezkariak, Antzuolako alkatea eta bertako futbol taldeko kideak gonbidatuko dituzte. Bazkaldu ostean, 17 urte Soran daramatzen Ibai Rascon jokalaria omendu eta Udalarari eskerrona adieraziko diote. Ekitaldia borobiltzeko ohorezko aureskua eta sakea egingo dira. Egunean bertan estreinatuko dute zelaia Sorako erregional mailako bi taldeen partiduekin.

### EMAITZAK

#### PELOTA

Rico IV – Begino	22
Gorka – Laskurain	21
Olaizola I. – Mendizabal II	22
Aritz Lasa – Laskurain	17
Mtz de Irujo – Pascual	22
Xala – Laskurain	20
Urrutikoetxea – Ibai Zabala	18
Idoate – Laskurain	13
Olaizola I. – Beloki	17
Aritz Lasa – Laskurain	22

#### FUTBOLA

Sora (Erreg. B) – Sora (Erreg.)	8-0
Eibar SDA – Sora (Kad.)	8-0
Sora (Jub.) – Lazkao K.E.	2-3
Sora (Erreg.) – Eibar	6-1
Urki – Sora (Erreg. B)	4-2
Urola – Sora (Jub.)	1-0
Kadeteek deskantsua	

### AGENDA

#### PELOTA

**Urriak 1, barixakua 20:00etan Hendaian**

Gonzalez – Zubieta  
Xala – Laskurain

**Urriak 3, domeka 17:00etan Oñatin**

Xala – Pascual  
Mtz de Irujo – Laskurain

**Urriak 5, martitzena 17:15ean Agurainen**

Titin III - Barriola  
Mtz de Irujo – Laskurain

#### FUTBOLA

**Domekan 10:00etan Ibarren**  
Aretxabaleta K.E. – Sora (Erreg.)

**Zapatuan 15:30ean Unben**  
Sora (Jub.) – Lazkao K.E.

**Zapatuan 11:00etan Estalan**  
Sora (Kad.) – Eibartarrak F.T.

**Domekan 11:00etan Estalan**  
Sora (Jub.) – Ikasberri K.E.

#### Barçako jarraitzaileen afaria

Ekainaren 5ean F.C. Barcelona taldearen 19 jarraitzailek afaria egin zuten Txurruka jatetxean. Barça taldea 2010. urteko BBVA ligako irabazlea izan dela ospatu zuten.



## ZORION AGURRAK



**Irati Perez**  
Urrian 2xan 9 urte!  
Zorionak politta!  
Etxeko guztion partez!



**Nora Mendi Altuna**  
Irailan 30ian 6 urte.  
Zorionak mendizale  
etxekuen partez!



**Leire Etxabe**  
Irailan 27xan 6 urte  
Zorionak Leiretxoooo!  
Ze haundi egin zaran potxola!  
Muxu haundi pilo bat  
etxekuen partez!



**Eukén Mendi Hernaiz**  
Urrian 2xan bi urte!  
Zorionak bitxo!  
Muxu haundi bat aitatxo,  
amatxo eta Nahian partez.

## jaiotakoak

JONE ZUBIAURRE UNAMUNO



## LEHIAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- **Saria:**  
Txurruka jatetxean aurrez prestatutako janarixetan 30 euro gastatzeko bonua

Oharra: Lehiaketako zozketa barixaku eguerdian burutuko da.

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea: Ane Muro**
- **Mikel Leunda,**  
Udaleko Euskara Teknikaria da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan pertsonaia.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)



## NARCISA ELIZBURU GALLASTEGI

I. URTEURRENA

*“2009ko irailaren 1ean hil zen, Soraluzen Iraileko haizearekin batera zure goxotasuna itzuli da berriz ere gure artera. Zure irria, apaltasuna, zurekin bizitako oroimenera, zure taupadek salto egin dute gure bihotzera. Gaur ere etorri gera maite zaitugula esatera.”*

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Juamma Berrueta eta Soraluze 1936 lan taldea.

## ERREKETIAK PLAENTXIAN SARTU ZIRAN EGUNA (MUNETAKO HAITZETAN ERAIKITTAKO GERRA-LUBAKIA.)

1936ko Irailaren 22xan sartu ziran Plaentxiara tropa Frankistak. Ofizialki Erreketez osatutako Tercio de Montejurra batailoia izan zan herrixan lehenengoz sartu zana, 800 bat soldadurekin. Horren ostian borroka latzak izan ziran herrixan errepublikaren aldeko eta altxamenduaren aldeko soldaduen artian.

Eibar Errepublikaren alde zeguan eta tropa frankistak hurreratu ziranian Plaentxia bi frentien artian geratu zan. Karakate aldian Frankistak (Frente Popularra bota eta gero) eta Iruren Errepublikaren aldekuak (Gudarixak). Danera zazpi hilabetian egon zan neguko frentia Plaentxian.

Gerra osteko urtietan Irailaren 22xa egun seinalatua izan zan Plaentxian Frankistendako eta Plaza Barrixari Tercio de Montejurra izena ipini zotsen. Diktadura amaitu ostian Irailaren 22ko ospakizunak bertan behera laga ziran eta Plaza Barrixak bere benetako izena berreskuratu zeban.

Gero arte Iñigo:

Zenbat toki ezberdinetako zenbat lagun! Hori da burura datorkiguna zurekin akordatzean. Lagunak... koadrilan, perretxikotan, arrantzan, oporretan, lanean, kiroletan... . Oso gaztetatik erakutsi zenigun azken horietan abilezia berezia zenuela; pilota eta futboleangehienbat. Eibarren jokatu zenuen, Errealean, Soran... ona zinen, oso ona. Atzealdean baina beti taldea aurrerantz bultzatzen, indar guztia jarritz, taldekideei eskainiz eta eskatuz, azken momentura arte (bizitzan etxekoei eta adiskideei egiten zenigun bezala). Zenbat lagun bazter guztietan!

Herriarengatik lan egitea ere egokitu zitzaizun: gogoratzen dugu nola une zailenetan Soraluze F.T. aren ardura hartu zenuen; orduan ere lankideak lagun bihurtu zenituen!

Maite zenuen zure herria, bai horixe! Txokorik gogokoena: ortutxoa. Lasai gizon! Batu eta banatuko ditugu adiskide eta sendikoen artean hain xamur landatutako tomate, letxuga eta zerbok, horiek baitziren azken bolada latz honetan zure aterpea. Zokondo horretan aritzen zinen bezala joan zara, zarata atera gabe, maite zintuen jendez inguratuta. Agian hainbestetan elkarrekin entzundako Laboaren kanta buruan zenuela:

*“ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan  
dakidalako irauten duela orainak ere geroan.”*

Azken mezua lagun katalandar batek idatzia: “Familia handi bat egin gaituk”  
Beti gure bihotzetan. Ez adiorik, gero arte!



**IÑIGO PLACENCIA**

2010EKO ABUZTUAREN 15EAN HIL ZEN



## FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



**SORALUCE**

**Soraluce S. Coop.**  
Barrio Osintxu s/n  
20570 Bergara  
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76  
Fax: +43 943 76 51 28  
soraluce@soraluce.com  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

Diagnostiko Biologikoa  
Naturopatia  
Homeopatia  
Fitoterapia Ortomolekularra  
Kromoterapia  
Bach-en loreak...

**Ikur Olabarria Corchero**

**ioko**  
Medikuntza Alternatibo Zentrua  
Centro de Medicina Alternativa

Jandorianiz, 3 Behea  
20720 Azkoitia,  
Boulevard, 9 Principal A  
20003 Donostia  
If: 615 779 920  
[www.medicinaalternativa-ioko.net](http://www.medicinaalternativa-ioko.net)

**TXURITXU**  
Zuekin  
gozatzen

943 75 24 43  
Santa Ana kalea 22 behea

**MARI MAR  
HARATEGIA**  
*Gurean  
Euskal Herriko  
produktuak!*  
Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

**ARMENDIA  
JATETXEA**

Ezozu Auzoa 11  
20590 Soraluze  
T. 943 75 10 02  
SUKALDARITZA  
TRADIZIONALA

**Kontulan  
Aholkularitza S.L.**  
Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarateak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

**Soraluzeko  
Kooperatiba  
Elkartea**

**100** URTE  
1910 - 2010

943 75 13 45

# SORALUZE FUTBOL TALDEA



OHOREZKO SAKEA  
OMENALDIA  
MUSIKA  
PARTIDUAK

**INAGURAZIOA**

**Egitaraua** (eguna datozen egunetan zehaztuko da):

- Ordezkarien bazkaria Txurrukan.
- 16:30ean Inaugurazio ekitaldia (Omenaldia, ohorezko aureskua eta sakea...)
- 17:00etan Erregional mailako taldeen partiduak

- Taberna zabalik izango da eta Sorako kamisetak erreserbatzeko aukera ere izango da.

